

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5205

169/2023 DEKRETUA, azaroaren 7koa, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularren kargu-uztea eta izendapena, bai eta hura ordezkatu duenaren kargu-uztea eta ordezkatuko duenaren izendapena ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontuak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren 10. apartatuan xedatutakoaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko azaroaren 7an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Begoña Arroitauregi Jaio andrea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko (aurrerantzean, KEAO) titularren kargutik kentzea, haren agintaldia amaitu delako.

2. artikulua.– Javier Serrano Chamizo jauna KEAOk titularren ordezkari kargutik kentzea, haren agintaldia amaitu delako. Izan ere, pertsona horrek KEAOk titularra ordezkatu du, kargua hutsik egon denean, edo titularra egon ez denean edo gaixorik egon denean.

3. artikulua.– Begoña Arroitauregi Jaio andrea KEAOk titular izendatzea, sei urterako, dekretu honek ondorioak sortzen dituen egunetik aurrera.

4. artikulua.– Javier Serrano Chamizo jauna izendatzea KEAOk titularren ordezkari, titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean edo kargua hutsik dagoenean.

5. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko azaroaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.